

TRANSEXUALITATEA

Inskrizio zbkia: BI-157-03

Abendua 2002

Inmaculada Mujika idatzita

Koordinatzaile: ALDARTE

Laguntzaile: Eusko Jaurlaritza. Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

SARRERA

Transexualitateari buruzko liburuxka duzue hau, hots, gure gizarteak modu erratuan anormaltasun edo gaitzaz jotzen duen esperientzia bati buruzkoa.

Hortaz, testu honen xede nagusia transexualitatearen inguruko informazioa zabaldu eta horren gaineko uste erratuak abailaraztea da. Horretarako, pertsona transexualei dagozkien gizarte, kultura eta lege arazoei buruzko informazioa eskaintzen dugu.

Sarrera modura, laguntza eske Aldartera jo zuen transexual baten gurasoei zuzenduriko gutuna aurkeztu nahi dugu:

Bilbo, 2001eko uztailaren 10a

XXXXX jaun-andreak

XXXX naiz, psikologoa (xxxx zenbakidun kolegiatua), familia eta bikote terapeuta eta Aldarte-ko (“Gay eta Lesbianeiei Laguntzeko Zentroa”) laguntzailea.

Aldarte zentroa gay, lesbiana eta bestelako talde minoritarioei –transexualak besteak beste- laguntza, informazioa eta aholkularitza eskaintzen dien elkarte da eta, gutun honekin batera, Aldarte zer den eta zer zerbitzu eskaintzen dituen sakonago azaltzen duen liburuxka igortzen dizuet.

Maria zuen alabarekin hitz egin baino lehen gutun hau behin eta berriro eta egun desberdinetan arretaz irakurtzea gomendatzen dizuet.

Badira hilabete batzuk zuen alaba Mariarekin lanean ari naizela, hark bere balizko transexualitatea onartzeko prozesu pertsonalari ekiteko laguntza eskatu zuelako. Harekin hainbat elkarrizketa izan ondoren egiaztatu ahal izan dut gizonezko transexualitate prozesu baten aurrean gaudela -hori uka lezakeen inolako gaitz psikikorik gabekoa-, eta Mariak osotasun emozionala eta buru osasuna gorde ahal izateko guztiz kontuan hartu eta onartu beharreko errealitatea dela.

Zuen alabak azaltzen duen zailtasunik handiena zera da, bere gizonezko nortasun transexuala onartzeak zuengan izango duen eragina. Eta horri dagokionez dierazi behar dizuet transexualitatea ez dela buru gaisotasuna eta, beraz, ezin daitekeela sendatu, ez baitago ezer sendatzekorik ikuspuntu psikikotik; pertsona, familia eta gizarte mailako oso egoera konplexua onartu beharrak berarekin dakartzan zailtasunak gorabehera.

Zer da transexualitatea?

Bada, transexualitatea dagoela esaten dugu pertsona baten sexu biologikoa haren sexu psikologikoarekin bat ez datorrenean, hau da, harekin identifikatzen ez denean. Horrela bada, zuen alaba Maria ez da emakumezko nortasunarekin identifikatzen, gizonezkoarekin baizik; ez du bere burua neska sentitzen, ez bada mutila (Miguel izenekoa). Transexualitatea ez da oraindik argitu ikuspuntu zientifikotik eta hamar mila pertsonatik bati gertatzen zaion fenomeno da.

Modu errazagoan esanda, transexualitatea sexu fisikoaren eta norberak sentitzen eta antzematen duen sexuaren arteko ezadostasuna da. Maria fisikoki emakumezkoa da, baina psikologikoki eta emozionalki gizonezkoa, guztiz eramangaitza gertatzen zaion emakumezko gorputzean harrapaturiko gizona. Duela urte asko daki hori Mariak eta haurtzarotik jasan behar izan du sufrimendu hori.

Era beren, teknikaria naizen aldetik baieztatu behar dizuet transexualitatea ez dela ez perbertsioa, ez obsesioa, ez buru-nahasmendua.

Ikuspuntu mediku eta psikologikotik transexualitatea ez da alterazio psikiatrikotzat jotzen; ez da beraz buru gaitza, pertsonaren autodeterminazio gaitasuna baldintzatzen duten funtzioak aldatzen ez dituen neurrian. Horrek ez du esan nahi gertatzen denean transexualitateak sufrimendurik sortzen ez duenik. Norberak arrotz, kanpoko eta ezegoki antzematen duen itxura fisikoaz jabetzean sortzen da sufrimendua, naturaren gibel jokoa bailitzan.

Maria ez da ez “marimutila”, ez eta gizonezko itxura duen lesbiana. Gizon heterosexual askori bezala, itxura femeninoko emakumeak gustatzen zaizkio.

Transexualitatea ez da sexu-aukera, heterosexualitatea edo homosexualitatea ez diren hein berean; gure sexualitatea bizitzeko modu jakin bat aukeratzen dugula esaten dugunean, izatez, ez baitugu aukera kontziente batez, hautu libre batez hitz egiten. Erabaki dezakeguna adierazpen hori modu koherente eta kontsekuentean bizitzea da.

Transexualitatearen jatorria ezezaguna da, heterosexualitea edo homosexualitatearen jatorriak ezezagunak diren bezalaxe. Era berean, ezin dugu transexualitatea akats edo elbarritasun modura ulertu.

Mariak, azkenean, erabaki du badela garaia bere buruak sentitzen duena onartu eta horren arabera bizitzeko, eta aukeratu ahal izan duen gauza gutxietako bat izena izan da, Miguel, bai eta Miguelen ibilbideari abiada nola eman. Miguelek ezin du Maria izaten segitu zeren Miguel izateari uko egiteak, horrek bai sor diezazkiola gaitz emozionalak: depresioa, bere buruaz beste egiteko nahia edo harreman gaitzak, emakumezko gorputza duen gizona izanik emakumea izaten saiatuz gero. Miguelek badaki oso zaila gertatzen zaizuela haren nortasuna onartzea, eta berak ia ezkutuan bizi behar izan du, inguruarekin eta gizartearekin etengabeko gatazkan. Miguelek zuena izaten segitu nahi du, baina seme gisa, eta zuen laguntza, ulerkortasuna, onespina eta begirunea behar du bere bizitza ordenatu ahal izateko. Bizi psikikoa onartzeak, bere kasuan, pixkanaka gizona, hots Miguel bilakatuz joatea esan nahi du.

Seguruen noizbait pentsatuko zenuten egoera honen jatorrian zuek umea hazterakoan egindako akatsen bat izan daitekeela. Ez da horrelaorik, inolaz ere ez, eta harrigarriena da Miguel zuekiko leial izaten segitzea, ikasketekin aurrera egitea eta beste transexual batzuren modura marginalitatearen mugatan bizimodu malkartsura beharturik ez egotea. Oso bestela, Miguelek oraindik zuek maitatzea, zuekin kezkatu egotea, Zuzenbide ikasketak ahal dela nota onekin bukatzea eta emakume gisa trata dezazuen onartzea, zuen etxean nagusi den kohesio, egonkortasun eta maitasun maila handiaren adierazle da.

Jakinarazi behar dizuet, halaber, zuek ezin duzuela ezer egin zuen semearen transexualitatea aldatzeko, inongo profesionalik ezingo duen bezala. Zentzu horretako saio oro, haren mina eta dezepzioa areagotzeaz gain, hutsegitera bideraturik dago. Muga mugako saioek tratu txarretara eramán zaitzakete, direla emozionalak nahiz fisikoak. Zoritxarrez, oso ohikoa da erreakzio hori transexualen bizitzan, haiek babesteko eta “gaitzetik” libratzeko saioan gehien maitatzen dituzten pertsonak era guztietako gurutzebideak pairaritzen baitizkiete.

Zuen egoera ez da oraindik puntu horretaraino heldu, baina hori gertatzeko arriskua dago transexualitateak berarekin dakartzan aldaketak eta Miguelek gizon moduko bere benetako nortasuna bereganatzea elaboratzen hasten ez bazarete.

Miguel bera ere kezkatu eta izaturik dago bizitzak ekarriko dionaren aurrean eta neurri batean horrek kostu handiak suposatu dizkio, bakarrik eramán beharrekoak, horrek guztiak bere osotasun eta osasun emozionalerako duen arriskuarekin. Miguel (Maria) ez da inolaz ere zuek sentitzen duzuen min, amorru eta frustrazioaren erantzulea. Nahikoa lana badu bere buruari eutsi eta errealtatea onartzeko, bere egoerak dakartzan ezerosotasun eta arrisku guztiei aurre egiteko.

Zuen semea ulertzea garrantzitsua da oso. Miguelek ezin dio den bezalakoa izateari utzi, transexuala izatea ez baita aukeratzen den zerbait edo gutizia. Miguelek ez dizue minik eman nahi, esan baino ez du egiten bera zer den, ulertu eta onar dezazuen. Miguelek zuek ulertzea ere garrantzitsua da: zuen frustrazio eta amorrua nahi zenuten alaba ez izateagatik, zuen erru sentimenduak, lotsa, ezer ez ulertzea, milaka galderak, etab. Miguelen (Mariaren) guraso zareten neurrian zuen buruekiko eta semearekiko bakea lortu nahi baduzue, haren transexualitatearen aldaketa eta dolu prozedura bete beharko duzue, neurri handi edo tixkiagoan zeuei ere baitagokizue. Haren egoerak eta zuen minak badute konponbide eta lasaigarririk, baina oso ikuspuntu desberdinetatik abiatuta, besteak beste, Maria alabaren eta haren balizko oinordekoen galera landu, “behar bezalako” suhia eta ilobak izateko esperantza guztiak... Maria galduko duzue Miguel zeuenganatzeko, funtsean zuek Maria bezala ezagutzen duzuen pertsona on eta seme ona izaten segituko baitu.

Gutun honen beste arrazoietakoa bat zuen seme Miguelen (Mariaren) egoeraz hitz egiteko aukera zabaltzea da, nahi beste azalpen ematea eta zentro honetako pertsona eta profesionalen bitartekaritza eskaintzea zuen eta semearen artean sor litezkeen zailtasun eta gatazkak gainditu eta elkarrenganako hurbilketa eta elkar ulertzea lortzeko.

Beste alde batetik, pertsona transexualek maiz sufrimendu handiari egin behar diote aurre, ikusten baitute gizarte eta familia inguruak baztertu egiten dituela, ez dituela

ulertzen, irri egiten diela eta ez dituela haiek diren bezala tratatzen. Oso min handia pairatzen du egun Miguelek eta pertsona transexualen ingurune afektibo eta emozionalean sortzen diren etsipen, kezka eta era guztietako sentimendu kontrajarriak ere aipatu behar ditugu.

Aldarten ulertu egiten dugu zuek bizi duzuen egoera konplikatu eta zaila. Baliteke zuek guztiz frakasaturik, dezepzionaturik eta haserre sentitzea. Badakigu ez dela erraza seme transexuala izatea. Baina jakin ezazue ez zaudetela bakarrik eta zuen eskura dituzuela gure laguntza, denbora, ulermena eta elkartasuna. Zuek ez duzue ezeren errurik.

Hortaz, nahitaezkoa da zuen eta semearen arteko hurbilketa prozesua egotea, hainbat arrazoirengatik:

- Zuen eta zuen semearen artean badira lotura afektibo eta emozionalak, etorkizunean alferreko sufrimendurik egon ez dadin berbideratzen saiatu behar zaretenak.*
- Zuen semeak zuen beharra du berehalako etorkizunean duen lan zailari ekiteko, hots, gizon moduko bere paperari aurre egiteko, horrek ekarriko dizkion zailtasun guztiekin. Funtsekoa izango du Miguelek zuen laguntza afektibo eta emozionala gizarteratzerakoan, gizarteratze hori modu batean edo bestean gertatzea Miguelek bizi dituen baldintzen arabera izango baita, eta ez da berdin izango laguntza eta baliabideak izatea edo ez.*
- Gizonezko paper berria onartzerakoan ez da harritzekoa Miguelek depresioak edo aldaketa emozionalak pairatzea, eta zuen laguntza beharko du horiek gainditzeko.*

Aurkezten ari zaizkizuen oztopo guztiak gainditzen laguntzea dugu helburu bai nik bai eta Aldartek ere. Jakin ezazue eskura duzuela gure gunean eta zentro honetako taldea osotzen dugun pertsona guztien laguntza. Hala nahi baduzue, banan-bana, batera edo familia hartuta harrera egiteko prest naukazue, behar duzuen guztietan. Horretarako nahikoa duzue 94 423 72 96 telefonora deitu eta nitaz galdetzea edo zuekin lehenbailehen harremanetan jartzeko mezua uztea.

Besterik gabe, har ezazue nire agurrik beroena.

XXXX

Familia eta bikote psikologo eta terapeuta (xxx zenbakidun kolegiatua)

NAHITAEZKO ZENBAIT DEFINIZIO

Gizonezko transexualitateaz hitz egin ohi da sexu fisikoa emakumezkoa izanik norberak sentitzen duena gizonezkoa denean, eta alderantziz, emakumezko transexualitateaz hitz egiten da gizonezko sexu fisikoa izanik burua emakume gisa antzematen denean. Gizonezko transexualitatea emakumezkoena baino urriagoa izan ohi da.

Jendeak, oro har, homosexualitatea, trabestismoa eta transexualitea nahastu ohi ditu, guztiz bereizi beharreko hiru errealitate izan arren. Sexu biologikoa, genero nortasuna, orientazio sexuala eta jokamolde sexualaren arteko bereizketa argi ez egiteak

sortarazten du nahasmen hori. Kategoria horietako bakoitza, *neurri batean*, besteekiko autonomia da.

Sexu biologikoa kontzeptuak zera adierazi nahi du: izaki batek sexu ar edo emea definitzen duten atributu fisiologikoak edukitzea. *Genero nortasuna* esaten zaio pertsona horrek bere sexu biologikoarekiko duen onespén edo onspén ezaren barne-sentimenduari. Pertsona batek bere sexu berekoengana nahiz beste sexukoengana sentitzen duen erakarpen sexualari dagokio, bestetik, *orientazio sexuala* eta, azkenik, *jokamolde sexuala* pertsona baten bizitzan zehar gertatzen diren izaera sexualeko pasarteei dagokie.

Horrela bada, homosexualitatea eta transexualitatea bereizteko esan behar da homosexuala ez dela beste sexu biologikoko partaide sentitzen, baina bere sexu fisiko bereko pertsonetikiko erakarpen afektibo eta sexuala sentitzen du. Lesbianak emakume gisa ikusten du bere burua eta gayak gizon modura.

Beste alde batetik, pertsona transexualak ez du halabeharrez heterosexual izan behar, gay edo lesbiana izan daiteke, eta denok uste bezala, sexu fisikoa berregokitzeko ebakuntza jasateak ez du haren orientazio sexuala aldatuko. Hau da, gizonekiko erakarpena sentitzen duen gizonezko transexualak desio homosexual hori sentitzen segituko du, ebakuntza gorabehera.

Azkenik, hau dugu transexualitatearen eta trabestismoaren (atxikitzen zarena ez den generoaren maneran janztea) arteko aldea: trabestituek duten nortasuna bat dator euren anatomia sexualarekin. Haien artean, beste modu horretara janzteak fantasiarekin edo estimulazio erotikoarekin baino ez du loturarik. Transexuala trabestia izan daiteke, baina ez halabeharrez. Garrantzitsuena da ulertzea batak ez duela nahitaez bestea ekartzen.

TRANSEXUALITATEA HISTORIAN ETA BESTELAKO KULTURETAN:

Oinarrizko oharra.

Transexualitatea ez da gaur eguneko esperientzia, historian zehar eta hainbat kulturetan egon den eta ezagutu den gertaera bat izendatzeko izen modernoa baizik. Transexualitate kontzeptua Harry Benjamin endokrino iparamerikarrak sortu zuen 50eko hamarkadan (XX. Mendea) eta hurrengo hamarkadan hedatuz joan zen.

Mundu osoko herrietan praktikatu izan da transexualitatea eta haietako askori aziti papera eman izan zaie edo iragarle gisa estimatu izan dituzte: besteak beste Indiako pardhi eta ihoosai taldeak, Hego Afrikako zuluak, Angolako kwayama eta obimbuduak, Sudaneko dinka eta nuer taldeak, Etiopiako konsoak eta amharak, Nubiako ottoroak, Indiako Vallabha sekta edo Celebes irlako bissu apaizak.

“Erdian dauden pertsonak” esaten zieten ipar lautadetako Iparramerikako biztanleek bai gizonezko bai emakumezko ezaugarriak zituztenei, eta txaman modura egiten zieten gur.

Aintzinako Erromako gizarteak onartu egiten zituen emakumezkoen izaera bereganatzeko beren burua zikiratzen zuten gizonezkoak. Hainbat gizartetan hermafroditek bi sexu zituztela onartzen zen eta, adin jakin batetik aurrera, aukeran ematen zitzairen zein sexutara lerratu. Baldintza bakar bat jarrita, gerora ez aldatzea.

Albanian, egun, Zinpeko Birjinak daude, hau da, nerabezaroan emakumezko sexuari zinpean uko egiten dioten emakumeak eta familia-buru papera ondorio guztiekin onartzen dutenak.

Logikoa denez, datuek era guztietako aldagaiak aurkezten dizkigute. Batetik, kultura guztiek ez dute transexualitatea modu berean onartzen edo bereganatzen. Gure mendebaldeko kultura kristauak, esaterako, pertsona transexualak onartu ez eze debekatu eta pertsekatu egin ditu mendetan zehar.

GIZARTE ETA LEGE ALORRAK

Gure gizarteak pertsona transexualak bazteru egiten ditu eta aurrejuzku ugari ditu horien gainean. Oro har, transexualen errealitatearekin zerikusi gutxi duten ideia erratuak ibiltzen ditugu, edo, gehienik ere, haien errealitatearen alde nahiko unilateral eta partzialarekin lotura dutenak. Tankera honetako iritziak izan ohi dira: *“Pertsona transexual guztiek operatzea dute xede nagusia, eta ebakuntza egiten ez badute trauma izaten dute”, “beren gorputza gorroto dute denek eta ez dute nahi, ezin dute horrekin bakerik egin”, “marginal izan nahi dute denek”, “transexualitateak haurtzaroko trauma psikikoa egon dela esan nahi du”, “denek imitatzen dituzte emetasun edo artasun prototiporik muturrekoenak: gehiegi pintatzen dira, ilea gorri platino jartzen dute, oso modu bitxian jantzen dira...”*

Transexualitateari buruzko iritzi hauek, bai eta transexualek pairatzen ohi dituzten bazterkeriak oso loturik daude generoen gainean zabaldua dauden iritziekin, hots, zer den gizonezkoa edo emakumezkoa izatea. Pertsona transexualak egoteak zalantzan jartzen du gure gizartean ezarrita dagoen genero banaketa zorrotza, hau da, gizon edo emakumea bakarrik izan daitekeelako ustea. Horrez gain, transexualitatea generoen ustezko naturaltasuna ere kolokan jartzen du: giza espezieko ar jaiotzeak berez dakarrela gizon sentitzea eta eme jaiotzeak emakume sentitzea.

Okerreko asmo horien ondorioz transexualek ez dute legearen babesik lortzen, haiek babestu bainoago baztertu egiten baitu. Transexualitatearen inguruaren dagoen lege hutsuneak zaildu egiten du horiek bizi dituzten egoeren konponbidea: NAN-an agertzen den izena kanpoko itxurarekin bat ez etortzeagatik lan-munduan baztertua izatea, horrek dakarren transexualuen langabezia tasa handiarekin; behar dituzten tratamenduen kostu handia; gaitz psikiko eta emozional latzak ekar ditzaketen familia eta gizarte gatazka larriak, zokoraturik bizi beharra, etab.

Estatu Espainolean 1983an egindako Kode Penalaren aldaketak sexua berregokitzeke ebakuntza kirurgikoa despenalizatu zuen. Gainera, 1987ko uztailean, Auzitegi Gorenak lehen aldiz onartu zuen transexual batek, sexu aldaketarako ebakuntza egin ondoren, gizonezko izenaren ordean emakumezkoa jartzeko eskubidea,

baina ñabardura batekin, Erregistroko aldaketa horrek ez dakarrela emakumezko sexuarekin erabateko parekatzerik ekartzen.

1989. urtearen bukaeran Europako Legebiltzarrak ebazpena argitaratu zuen kide diren estatuei eskatuz transexualek sexua aldatzeko zuten eskubidea bermatu eta horien bazterkeria debekatzeko xedapenak onar zituzaten. Irizpide eta gomendio horiei jarraiki, 1999ko urriaren 20an estatu espainolak “Nortasun Sexualaren Eskubidearen gaineko Lege Proposamena” kontuan hartzea erabaki zuen, Senatuko talde politiko guztien ahobatasunaz; lege proiektuan transexualitatearen gaia aurriztuz zen, hala nola pertsonen nortasuna Erregistro Zibilean aldatu edo zuzentzeko aukera eta ezkontzeko eta genitalen berregokitzapenerako ebakuntzak legez bideratu ahal izatekoa. Lege horrek, egun, eztabaidagai segitzen du diputatuen Legebiltzarrean.

Egun transexualitatearen gaineko arauketa berezirik ez dagoen arren, Erregistro Zibilean izena aldatzeko aukera aurriztuz duen jurisprudentzia ugari biltzen ari da, genitalak berregokitzeko ebakuntza egon ala egon gabe; bai eta transexualen ezkontza eta sexua aldatzeko ebakuntza osasun publikoaren barruan doan egiteko eskubidea, Andaluziako Erkidegoan. Baina kasu horiek, nolahi ere, gutxienekoak eta salbuespenekoak dira oraindik ere.

Legeak aurrera egin badu ere, aipatu behar da transexualei bizitza duinerako eta nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea onartuko dien Legea behin betiko onartzeke dagoela oraindik. Hau da, hurrengo kontuok onartuko dituen legea: Osasun Zerbitzu publikoen barruko doaneko prestazioen artean sexua berregokitzeko prozedura osoak sartzeari; Erregistro Zibilean, NAN-an eta gainerako agiri ofizialetan izena eta sexua aldatzeko eskubidea onartzea genitalen ebakuntza kirurgikoa egon edo egon ez, eta ezkontzeko aukera.

EBAKUNTZA

Gogoeta Zenbait

Transexualitatea, azken finean, berezkozat sentitzen ez diren, gorrotatzen diren edo errefusaten diren genitalak ezabatzeko desioak definitu ohi du. Hortaz, ondoko hau dugu asmo hedatu eta nagusia: transexualak operatzea du helburu. Baina errealitatean ez da hori gertatzen, badira bere burua transexual gisa definitu eta horrela bizi diren pertsonak, sexua aldatzeko ebakuntza kirurgikoa egiteko asmorik ez dutenak. Besteak beste, beren genitalak gaizki bizi ez dituztelako, horiekin disfrutatzen dutelako. *Transexualitatea ezin da bakarrik operatu nahi dutenen arabera definitu.*

Sexua aldatzeko ebakuntzak, hortaz, beharrezkoak dira zenbait transexualentzat, baina ez guztientzat. Kasu horietan kirurgiak sufrimendua leuntzeko modua eskain dezake, zenbaitetan genitalen errefusatzeko horretan zentratzen delako sufrimendua, gizon izatea zakila edukitzeak definitzen duelako eta emakume izatea alua edukitzeak.

Sexu berri batera egokitzeak hainbat sufrimendu arintzen ditu baina ez da panazea, ebakuntza ez da “berriro jaiotzea”, ez ditu kolpe batez aurretik bizitako lotura eta esperientzia guztiak askatzen. Transexualen egoera psikologiko osoa ez da automatikoki hobetzen ebakuntzaren ondoren, norberaren barneindarketarako eta

nortasun propio integratua berrindartzeko beharrezkoa baita nork bere buruarekin eta bere iraganarekin adiskidetzeari.

Beste alor garrantzitsua ebakuntzaren eta horrekin loturiko prozesuen (tratamendu psikologikoa, endokrinologikoa, kirurgikoa, plastiko-kirurgikoa eta estetikoa) kostu handia da, eta beraz, operatu nahi luketen transexual askok ezin dute egin. Nahitaezkoa da interbentzio horiek osasun sare publikoaren bitartez doanekoak izatea. Egun, Andaluziako Autonomi Erkidegoan baino ez da posible eta doan egiten dira ebakuntza horiek 1999az geroztik.

Eta azken ohar gisa zehaztu behar da operatu nahi duten pertsonak izan behar dutela azken erabakia eta ez profesionalek, horien zeregina transexualei laguntza eta aholkua ematea izan beharko bailitzateke. Gogoan izan transexualitatea ez dela “medikuaren aginduz” sendatu behar den gaisotasuna, genero-nortasunaren garapenaren beste aukera bat baizik.